



GIPUZKOAKO TRIATLOI FEDERAZIOA

Federación Gipuzkoana de Triatlón

Anoeta Pasealekua 5 – 20014 DONOSTIA (Gipuzkoa)

Telf. 688662096 www.kirolak.net email:

gipuzkoakotriatloifederazioa@gmail.com



Triatloi/Duatloi Egokitua Bultzatzeko Proposamena

Gipuzkoako triatloi eta duatloi frogen antolatzaile eta federazioko klubei eskatu nahi diegu, duatloi eta triatloi egokitua bultzatzeko asmoz eta kirol hau osasun bide eta integrazio sozial bezala ere erabiltzeko asmoz, duatloi eta triatloi egokitua ere kontutan izatea frogak antolatzeko orduan. Horretarako, gure proposamena zera litzateke:

Izen-emateen %2a duatloi edo triatloi egokituarentzat gordetzea izen-emate arruntaren parte izan gabe. Hau da, froga batean 300 partaide izango balira guztira, 294 izenemate kirol arruntarentzat uztea eta 6 duatloi edo triatloi egokituarentzat, adibidez. Honekin lortuko genuen kirol egokituaren parte hartzea bermatzea, bultzatzea eta integrazio sozialerako bultzada haundia izatea. Federazioetan, antolakuntzetan eta triatloi taldeetan hutsune handia dago gai honetan eta horren ondorioz, duatloi edo triatloi egokitu frogak antolatzeko konpromezua hartu eta landu ondoren, arazo batzuk suertatu zaizkigu. Adibidez, duatloia eta paraduatloia antolatu eta paraduatloilariak itxaron zerrendan geratzea, antolakuntzen izugarrizko lana alferrikakoa bihurtuz.

Azaldutako proposamenaz gain, paratriatloi eta paraduatloia bultzatzeko beste era batuzk egon daitezke: triatloi eta duatloi egokituko froga espezifikoak antolatzea (froga hauek bete behar dituzten ezaugarriak betez eta kirolarien beharretara egokituz) ohiko frogak antolatzearekin batera (bi lasterketa antolatu), desgaitasuna duten kirolarientzat izen-emateen portzentai bat gorde beharrean plaza kopuru bat gordetzea, etab.

Bestalde, gaztetxoan lasterketetan ere duatloi edo triatloi egokitua kontutan izatea eta parte hartzeko aukera ematea eskatzen da. Azken finean, kirol egokitua eta desgaitasun bat duten pertsonak ere kontuan hartzea eta duatloi eta triatloia praktikatzeko aukerak eskaintzea eskatzen diegu antolatzaileei, pausu txikiak emanez gutxinaka-gutxinaka gure kirola guztientzat eta ahalik eta inklusiboena izan dadin.

Antxintxika triatloi egokitu sailaren laguntzarekin kontu dezakezue aholku edo laguntza emateko. Antxintxika klubak eskerrak eman nahi dizkie orain arte parte hartzeko erraztasunak eman dizkieten talde eta antolatzaile guztiei eta ea denon artean triatloia edonork egiteko aukera izatea lortzen dugun eta Euskal Herriko Duatloia eta triatloia eredu izatea lortzen dugun. Gipuzkoako Triatloi Federaziotik Antxintxika klubak erakutsitako inplikazioa eta eskaintako laguntza eskertu nahi dugu inklusioa eta kirol egokitua bultzatzeko garaian, eta gure partetik hori guztia bultzatzeko konpromezua hartu nahi dugu.